## ZARAUZKO UDALA

### Hirigintza, Plangintza eta Ingurumen Zerbitzua

*Errotaberri industri sektorea urbanizatzeko Jarduketa Programa. Behin Betiko Onespena.*

2010eko otsailaren 18an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak zera erabaki zuen:

1. Aurkeztutako alegazioei ondorengo erantzunak ematea:

— Plásticos Urteta SL eta Urteta CB. Argitzea Urbanizatzeko Jarduketa Programaren eta urbanizazio-proiektuaren arabera, E bidea noranzko bakarrekoa izango dela, eta etorkizuneko 6. partzelak H bidetik izango duela sarbidea.

— Kepa Osa Larrañaga. Alegazioa aintzat hartzea. Hortaz, 10-1etik 10-7ra arteko partzelen pareko zona publikoan argiteria publikoa jartzea ere sartu egingo da urbanizazio proiektuan, gune ilunik ez gelditzeko.

— Nekane eta Jose-Antonio Aramburu. Alegazioaren zati bat aintzat hartzea. Hortaz, 3 eta 4 partzelak ez dira auzigaitzat hartuko, ez dagoelako horien gaineko prozedura judizialik; partzela bakoitzari azalera zehatz bat jarriko zaio Urbanizatzeko Jarduketa Programa idatziko duen lan-taldeak egindako proposamenaren arabera.

2. Behin betiko onartzea Zarauzko hiri antolamenduaren plan orokorreko Errotaberri industri sektorea urbanizatzeko Kontzertazio Batzordeak sustatu duen jarduketa-programa. Onartutako proiektua 2009ko abenduaren data duen testu bategina da.

— Sailkapena: Lurzoru urbanizagarria.

— Hirigintza-eraikigarritasuna (sestra gainetik): 97.750 $m^2$

— Eraikuntza berria: 59.637,82 $m^2$.

— Kontsolidatu den eraikuntza: 38.112,18 $m^2$.

— Jarduketa Sistema: Kontzertazio edo hitzarte-sistema.

— Urbanizazio kargen aurrekontua: 17.278.403,61 €.

— Kontzertazio batzordeak finantzatu beharrekoak: Urbanizazio-zamak, 11.659.939,56 €. Obren exekuzio materiala, 9.884.370,51 €.

— Administrazio publikoek finantzatuko dutenak: 5.618.464,05 €.

— Urbanizatze eta eraikuntza lanen egikaritza-programa: 48 hilabete urbanizatzeko eta gehienez ere, 2 urteko epea eraikuntza lizentzia eskatzeko urbanizazioa amaitzen denetik.

Jendeak oro har jakin dezan argitara ematen dena ondoko argibidearekin: Administrazio-bideari amaiera ematen dion eta behin betikoa den erabaki honen aurka jarraian agertzen diren Errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira:

Berraztertzeko Errekurtsoa: Aukerazkoa: Erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita. Errekurtsoa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsoa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa: Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki deritzozun beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Zarautz, 2010eko otsailaren 19a.—Jon Urien Crespo, Alkatea.

(1138) (2345)

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

### Servicio de Urbanismo, Planificación y Medio Ambiente

*Programa de Actuación Urbanizadora del sector industrial Errotaberri. Aprobación Definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 18 de febrero de 2010 adoptó el siguiente acuerdo:

1. Dar contestación a las alegaciones formuladas, conforme a lo siguiente:

— Plásticos Urteta SL y Urteta CB. Aclarar que la previsión del Programa de Actuación Urbanizadora y del proyecto de urbanización es que el vial E sea de dirección única y que los accesos a la futura parcela 6 se prevean desde el vial H.

— Kepa Osa Larrañaga. Estimar la alegación. El proyecto de urbanización deberá dotar de alumbrado público a la zona pública que da frente a las parcelas 10-1 a 10-7 para evitar zonas de penumbra.

— Nekane y José-Antonio Aramburu. Estimar parcialmente la alegación. En consecuencia, no se declaran como litigiosas las parcelas 3 y 4 al no haber procedimiento judicial sobre las mismas; a cada parcela se le atribuirá una superficie concreta conforme a la propuesta del equipo redactor del Pau.

2. Aprobar definitivamente el programa de actuación urbanizadora del sector industrial Errotaberri del plan general de ordenación urbana de Zarautz promovido por la Junta de Concertación del sector. El proyecto aprobado es el texto refundido de fecha diciembre de 2009.

— Clasificación: Suelo urbanizable.

— Edificabilidad urbanística (sobre rasante): 97.750 $m^2$.

— Nueva edificación: 59.637,82 $m^2$.

— Edificación consolidada: 38.112,18 $m^2$.

— Sistema de actuación: Sistema de Concertación.

— Presupuesto cargas de urbanización: 17.278.403,61 €.

— A financiar por la Junta de Concertación: Cargas de urbanización, 11.659.939,56 €. Ejecución material obras, 9.884.370,51 €.

— A financiar por Administraciones Públicas: 5.618.464,05 €.

— Programa de ejecución de las obras de urbanización y edificación: 48 meses para urbanizar y, como máximo, 2 años desde la finalización de la urbanización para solicitar licencia de edificación.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes Recursos:

Recurso de Reposición, con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde la publicación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día de su publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administrativo; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Zarautz, a 19 de febrero de 2010.—El Alcalde, Jon Urien Crespo.

(1138) (2345)